

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitale Guneak ia hestegorririk ez zuen bi hilabeteko haur bati egindako ebakuntza arrakastatsua izan da

Orain hiru hilabete dituen haurtxoak 2 mila jaioberritatik bati sortzen zaion arazoa zuen

Viernes, 08 de febrero de 2013

Javier Pisón, Lidia Ayuso eta Alberto Pérez-ek osatutako Nafarroako Ospitale Guneako pediatriako kirurgialari-taldeak "arrakasta"-tzat jo du ia hestegorririk ez zuen ([ultra long gap hestegorriko atresia](#)) bi hilabeteko haur bati Nafarroan egindako [lehen ebakuntza](#). Gainera, urtero Espainian egiten diren era horretako ebakuntza gutxitako bat da; izan ere, aipatutakoa bezalako atresia 2 mila jaioberritarik bati sortzen zaio gutxi gorabehera.



(Ezkerretik eskuinera) Alberto Pérez, Lidia Ayuso eta Javier Pisón-ek osatutako pediatria-kirurgiako taldea.

Hestegorriko atresian, hestegorririk etena du eta janaria ez da urdailera heltzen. Ebakuntzaren ondoren, orain lau hilabete dituen haurrak eboluzio ona du, gizentzen ari da, ahotik eta zundaz elikatzen eta ahotik normal jaten hasi arte ospitalean geratuko da. Neska txikiak Down-en sindromea du.

Foru Komunitatean hautemandako lehen kasua da, eta kirurgialariek azpimarratu dute ebakuntzaren emaitza ona Pediatriako Kirurgia taldeak, Haur Anestesiak, Jaioberrien Atalak eta Pediatriako ZIUak emandako laguntza eta egindako lanaren ondorioa izan dela, bai eta haur eta pediatriako ebakuntza-gelako erizaintza-taldeek emandako laguntza eta egindako lanaren ondorioa ere.

Abenduan, jaioberriari eta 3 kilo baino gutxiago pisatzen zuela, lehen kirurgia egin zitzaion, bide torakoskopikotik (toraxean 0,5 cm-ko hiru ebaki txiki eginez) eta existitzen diren hestegorriko minoi txikiak luzatzeko teknika egiten saiatu zen.

Astebeteren ondoren eta aukera horrek ez zuela espero zen emaitzarik ematen erreskateko kirurgia oso konplexua egin zen; bertan kirurgiako ekintza berean haurraren lepoa, toraxa eta sabela ireki ziren. Urdail txikia moldatu egin zen hodi bat bihurtzeko (Scharli-ren teknika) eta

gora egin zen, esterno eta bihotzetik pasatuz lepoan zegoen hestegorriko muinoira iritsi arte. Ebakuntza hau Nafarroan egiten den lehen aldia da eta munduan oso gutxi egin dira adin horretako hurrekin.

Zailtasun handia

Zailtasun handiko kirurgia da eta horri erantsi behar zaizkio hurraren adin eta tamaina txikiak. Ebakuntzak sei orduz iraun zuen. Konplexutasun handia izan arren, ez da konplikaziorik egon. Hestegorriko atresiak gutxitan gertatzen dira, eta kasu hau are bereziagoa zen. Hestegorriko segmentu luzea falta denean eta kolon edo urdailagatik ordeztu behar denean, haurra hazteko zain geratzen dira ehun sendoagoak, nutrizio-egoera hobea eta tamaina handiagoa izan ditzan ebakuntza errazte aldera. Haur horren kasuan sabelaldean aurkitutako atxikidurek ebakuntza atzerapenik gabe egitera behartu zuten.

Normalean, kirurgialariek adierazi dutenez, zuzenean itxi daiteke: hestegorriko bi muturrak lotu muturrak "luzatuz"; baina hurrak hestegorriak ez zuenez ia ezinezkoa zen ohiko kirurgia egitea; beraz, ebakuntzaren emaitza ona Nafarroako kirurgia eta pediatriako ekipoaren arrakasta dela irizten dute.

"Maila oso handiko kirurgia da. Hainbesteko konplikazioa zuen kirurgia-kasu bat bera ere ez da izan eta oztopo asko gainditzea ekarri du. Krisi-garaian, profesionalok berrikuntza eta gaixoaren zaintzaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu" aipatu dute kirurgialariek.